

**OÑATIKO LEHENENGO FUTBOL-KANPUA**

Dokumentu interesantia da hau, nahiz eta kalidade aldetik oso ona ez izan. Oñatin izan zan lehenengo futbol-kanpua nun eguen erakusten dosku fotografixa honek: **Ibarrako** zelaixan, hain zuzen be. Gaur egunian antxiñako tren-estaziño ondoko jolaslekuari esaten xako Ibarra. Baiña izen hori, berez, erreka inguruko laukuniari dagokixo. Gerraostian Galdostarren zerriak okupau eben sail hori eta orain pila-fabrikiak.

Estanku Zaharreko **Pablo Ugarte** zanak itxi oskun kirol-kronikiari eskerrak, badakigu noiz eta zela modutu zan Oñatiko lehenengo futbol-taldia: estudiante eta kale-mutil batzuek sortu euen 1921 aldera hasierako **Aloña Mendixa**. Futbolian egiteko ganorazko zelaixa bihar zan, jakiña, eta horretarako **Bittor Galdos** eta **Doroteo Arrazola** jaunai alkilau xaten lau urterako Ibarrako terrenuok. Futbol-kanpo horretan jokatu ziran gure herriko lehenengo partidu ofizialak. Aurretik be ibiltzen ei ziran futbolian Oñatiko mutikotiak Bidaurreta aldian-eta, baiña era informalian.

Illun samarra danez, eztago esaterik nortzuk diran argazkixan agiri diran jokalarixak. Guk behintzat eztoqu inor ezagutu. Baiña orain dala larogei bat urte **Kale Zahar barrenak** eukan itxuria ederto ikusi geinke. Lehenengo illaran eta erreka aldera begira etxeoste batzuk dagoz: eskumako lehenengo bixak bota egin ziran handik puntuko, orain Egaralur enpresia daguen etxia jasoteko; errekarako kantoia somaiten da, nekez bada be, baiña zubixa artian egin barik egongo zan; **Errementerixenian** hasten dan etxe-illariak orain dala gutxira arte gorde dau egitura hori; majo aldatu da ondoren datorren **arbolada txikiña**, orain arbola bakarrarekin geldittu da-eta; eta **Kurtzetxoko** ermittiaren atzekaldia be ondo ikusten da, erantsitta eukan etxe eta guzti.

Barrenian, berriz, beste honeik agerketan dira eskumatik ezkerrera: **Sarrixeneko** etxetzarra, atzian **Kanpantxoko** beste etxe batzuk dakola; gero aldamenian eguen ortua, aspalditxo etxebizitzaz bete zana; **Altzaa-Gomendio-Lizaurretaren** bizileku dotoria, orduantxe Damian Lizaur arkitekтуak beretzat konpondutakua; ondoren **Santzena, Mantxikuena, Enterradoriarena, Sarriko, Lazkanokua** eta **Kurtzekua**; ez da ikusten azken bi honein artian eguen tailler bat; bai, ostera, porterixa atzeko **artasail peligrasua**: izan be, arto artera jausittako balue bat baiño gehixago zulatu ei eben igitaixaz han lanian jarduten eben baserritarrak.

J. E.

Jabier Arriaranez itxi doskun fotografixa hau Udaleko Argazki-fonduan topau leike.

PEÑAKOBA**AUTOESKOLA**

Arkitekto Lizaur

Tfnoa: 78 05 60 OÑATI

Zarugalde, 46

Tfnoa: 79 29 93 ARRASATE

**IRIZAR ESTANKOAK**
LOTERIAK

Foruen enparantza, 6 • Tfnoa: 78 00 15

20 560 OÑATI (Gipuzkoa)